

Hirien pertsonalitatea aldatzen ari da?

Aurkezpena:

Hirien pertsonalitateari buruz ariketa hauek egin ditzakezu:

- Ikusi bideoa eta galderei erantzun.
- Irakurri testua eta hitzak antolatu, zentzuzko esaldi bat osatzeko.
- Taldean, gaiari buruz hitz egin.



Ikusi bideoa

[Aukeratu erantzun zuzena:](#)

Hirietan zer gertatzen ari da?

- Europar soilik hiriak berdinak bihurtzen ari dira.
- Globalizazio eta kolonizazio prozesu bat.
- Aireportu asko ari direla eraikitzen.

Plan Estrategikoak zerbait egingo du hiri guztiak berdinak ez izateko?

- Bai, baina oraindik ez dakite nola.
- Ez, ez zaio arazo hori axola.
- Bai, baina laguntza juridikoa behar dute lehenengo.

Hiriek pertsonalitatea galduko dute?

- Bai, hiri batzuek besteei kopiatu dietelako.
- Bi erantzunak zuzenak dira.
- Bai, horretarako arriskua dago.

Kepak zertarako erabiltzen du Calatravaren zubiaren adibidea?

- Leku bakoitzeko kulturaren arabera eraikitzen dituelako zubiak.
- Hiri guztietan arkitektura berdina erabiltzen dutela azaltzeko.
- Zein zubi desberdinak egiten dituen adierazteko.

Zer egin daiteke hiriek pertsonalitatea ez galtzeko?

- Kalitatezko arropa saldu.
- Gure eredu propioa sortu.
- Pintxoak merkeago jarri.



Irakurri testua

Testua irakurri ostean, antolatu jarraian dituzun hitzak zentzuzko esaldi bat osatzeko:

Gure herriak eta hiriak asko aldatzen ari dira urtetik urtera: eraikin berriak egiten ditugu, hainbat kale oinezkoentzat bihurtu, bidegorriak sortu, denda modernoak ireki, tabernak eraldatu... Horrek hiri bakoitza berezi bihurtzen duela uste duzu?

Gaur egun, munduko ia hiri guztietan antzeko kale bat topatuko dugu: nazioarteko kate nagusien dendak eta eraikitzaile handiek egindako etxeak ditu, eta hiriaren erdigunean dago. Berlinen, Londresen, Parisen, Madrilan edo Bilbon egon, guztietan ikusiko dugu



Zara, Pull and Bear, Stradivarius edo Woman's Secret. Hala ere, errealitate hori beti izan da horrelakoa?

Hiri gehienek plan estrategiko bat dute. Horren bitartez, hiria etorkizunean nolakoa izango den zehazten dute agintariek, eta hori lortzeko zer behar den aurreikusten dute. Gu Donostiako Estrategia Bulegoko zuzendari-koordinatzailearekin bildu gara, Kepa Kortarekin (Ordizia, 1959), hain zuzen ere. Gipuzkoako hiriburuan 2020. urtera arteko plana dute eskuartean, eta erronka nagusien artean honako hauek dituzte: gai inklusiboak, ingurumena, garraioa, ekonomia...

KOLONIZAZIOA

Merkataritzara ere globalizazio-prozesua iritsi da. Munduko edozein hiritara oportetara joaten bagara, denda berdinak aurkituko ditugu. "Merkatari txikientzat konpetentzia handia da. Izan ere, multinazionalak dirua dute eta, beraz, erdiguneko lokal handiak eskuratzen dituzte", kontatu digu. Kortak fenomeno horri izena jarri dio: "Niretzat kolonizazioa da. Nire lagun batek, berriz, hiriek aireportuak ematen dutela esaten du".

Arazoa zein den badaki, eta, horregatik, Plan Estrategikoan konponbidea bilatu nahi diote horri. "Ez dakigu nola, baina egingo dugu. Bestela, Pragari edo Veneziari gertatu zaiena gertatuko zaigu eta pena da", azaldu digu.

GASTRONOMIA GURE BEREZITASUNA DA

Zergatik etortzen da hainbeste jende Euskal Herrira? Beste gauza askoren artean, oso ongi jaten dugulako. "Japoniarrak gure esperientziaren berri izatera etorri ziren, arlo horretan eredia garelako". Zentzu horretan, hori da Euskal Herriaren berezitasun bat. Gauza bera lortu beharko genuke beste alor guztietan: "Leku bakoitzak bere berezitasunak eduki behar ditu, horrek egiten baitu erakargarri". Hiri guztietan gauza bera topatzen badugu, nola bereiziko dugu bata edo bestea?"

Beraz, Kepak oso argi du: "Bakoitzak bere eredia eraiki behar du eta ez beste batena kopiatu".



TURISMOA

Donostiako ekonomian turismoak garrantzi handia du. "1843. urtean erregeak etortzen hasi zirenetik, hiri turistikoa da", azpimarratu du Kortak. Azken aldian, turismoak eztabaida sortu du herritar artean, hainbat hotel eraikiko direlako. "Gure estrategia zehaztu behar dugu, fretoa jartzeko beharrezkoa bada", gehitu du.

Turismoa, merkataritza, gastronomia eta arkitektura ere aipatu dizkigu: "Calatravak, adibidez, antzeko zubiak eraiki ditu munduko hainbat hiritan. Baina horretarako kontuan hartzen ditu lekuko kultura edo egitura? Nire ustez, ez". 'Arkitektura Izarra' mundu osora zabaldu da eta, Calatravak bezala, hainbat arkitekto bere estiloa zabaldu dute. "Moda bat egon da: arkitektura eta merkataritza bera aurkituko ditugu mundu globalizatu honetako txoko guztietan".

Eta zuri, zer iruditzen zaizu? Hiri guztietan eraikin eta denda berdinak ikusten dituzu? Hiriek pertsonalitatea galdu dute? Hala bada, hori ez gertatzeko, zer egin daiteke?

bakoitza / Horrek / bihurtzen / duela / uste / hiri / berezi / duzu?

bat / estrategiko / dute. / Hiri / plan / gehienek

da. / Merkataritzara / globalizazio-prozesua / ere / iritsi

kompetentzia / handia / txikientzat / Merkatarari / da.

Euskal / Zergatik / jende / da / etortzen / Herrira? / hainbeste

lortu / alor / Gauza / guztietan. / bera / beste / beharko / genuke

ekonomian / handia / turismoak / du. / garrantzi / Donostiako

Eta zuk?

Jarri taldean eta komentatu puntu hauek:



- Hiriak pertsonalitatea galtzen ari direla uste duzu?
- Zer egin dezakegu kate handiek dena ez bereganatzeko?
- Zuk non erosten duzu? Bertako dendetara joaten saiatzen zara?
- Eta otorduak? Non egiten dituzu?
- Zer berezitasun ditu zure herriak/hiriak?

Erantzunak

Hirietan zer gertatzen ari da?

Globalizazio eta kolonizazio prozesu bat.

Plan Estrategikoak zerbait egingo du hiri guztiak berdinak ez izateko?

Bai, baina oraindik ez dakite nola.

Hiriek pertsonalitatea galduko dute?

Bi erantzunak zuzenak dira.

Kepak zertarako erabiltzen du Calatravaren zubiaren adibidea?

Hiri guztietan arkitektura berdina erabiltzen dutela azaltzeko.

Zer egin daiteke hiriek pertsonalitatea ez galtzeko?

Gure eredu propioa sortu.

Irakurri testua

(Horrek hiri bakoitza berezi bihurtzen duela uste duzu?)

(Hiri gehienek plan estrategiko bat dute.)

(Merkataritzara ere globalizazio-prozesua iritsi da.)

(Merkatari txikientzat konpetentzia handia da.)

(Zergatik etortzen da hainbeste jende Euskal Herrira?)

(Gauza bera lortu beharko genuke beste alor guztietan.)

(Donostiako ekonomian turismoak garrantzi handia du.)

Transkripzioa

1. Hiri guztietan kale berdina dago: denda eta eraikin antzekoekin. Zer gertatzen ari da?

Alde batetatik (batetik) dago globalizazio prozesu bat, eta hori nik askotan aipatzen dut, erabiltzen dut hitz bat, da kolonizazioko prozesu bat, ez? Eta kolonizazio hori zer motatako kolonizazioa? Azkenean, gertatzen ari da, zu joatean zara, Europan behintzat, eta kanpoan ere, azkenean, bihurtzen ari gara berdinak. Eta bat (batek) erabiltzen zuen terminoa, "ematen du zaudela edozein aireportutan".

2. Plan Estrategikoak zerbait egiten du hori ekiditeko?

Bai, zerbait egiten ari da hor, baina bai ikusi dugu momentu honetan, eguneratze-prozesu honetan, Plan Estrategikoaren eguneratze-prozesu honetan, behar dugula fokoa jartzea hor. Eta horretarako, baita daukagu helburua strategi bat edo eraikitzea hor. Eta estrategia hori (horrek) badu zerikusirik azkenean juridikoki zer egin leike, zer egin dezakegu hori, posizio hori edo beste leku batean jartzeko. Oso zaila da, oso zaila da, baina bai ikusten da zerbait egin behar dela.

3. Hiriak pertsonalitatea galtzen ari dira?

Nik uste dut arriskua dagoela galtzeko. Niretzat gaude momentu batean, adibidez, herri askok ikusten duzu azkenean kopiatzen ari direla ereduak, ez? Bilboko kasua, adibidez, ez? Bilboko kasua kopiatu dute leku askotan, ez? "Arquitectura Estrella" (Arkitektura Izarra) edo ez? Erabili dute baita leku askotan, baina nik askotan, aurkezpenetan jartzen dut Calatravako (Calatravaren) kasua, eta daukazu zubi bat Dublinen, bestean, bestean... Zuk jartzen duzu argazkia eta edozein... Ez dago lotuta azkenean hor dagoen kulturarekin edo azkenean estrukturarekin eta abar. Orduan nik uste dut hor egon dela moda bat...

4. Zer egin daiteke hiriek pertsonalitatea ez galtzeko?

Ez dakigu nora joango den... Ikusten dugu lehen aipatu dugun globalizazio prozesua hor dago (dagoela) eta oso zaila da jakitea noraino joango den, ez? Nik pertsonalki pentsatzen dut jende guztiak bilatzen duela singularidade (berezitasun) bat. Eta galtzen baldin baduzu singularidadea (berezitasuna), galtzen duzu atraktiboa (erakargarritasuna). Donostiara joatea gauzak erostera, bueno, daukat Madrilen berdina edo Bartzelonan edo bestean. Orduan galtzen duzu atraktibo (erakargarritasun) bat, ez? Zergatik etortzen dira hona gastronomía (gastronomiagatik)? Zeren daukate pintxoak eta da gauza desberdina beraiantzako, ez? Eta kalitatearekin egiten duzun gauza bat eta hori ere oso inportantea (garrantzitsua) da. Nik uste Donostian ere hori kontutan eduki (kontuan hartu) behar da. Horretarako behar da, eredu hori ez badugu nahi, guk gurea eraiki behar dugu.